



AYUNTAMIENTO DE BERRIOZAR
BERRIOZARKo UDALA

Hautaketa proben bitartez, izangaien bi zerrenda osatzeko deialdia. Bata lorategien arloan sortzen diren premiei erantzuteko izango da, eta bestea, garbiketako eta lanetako arloan sortzen direnei erantzuteko. Aldi baterako kontratatzeen bidez, Berriozarko Udaleko Zerbitzu Anitzen alorrean sortzen diren lan beharrei erantzuteko erabiliko dira biak ala biak. Postuak D mailakoak izango dira.

Udal honetako alkate jaunak 20110499 zenbakiko erabakia hartu zuen 2011ko irailaren 27an. Erabaki horren bidez, hain zuzen, hautaketa proben bitartez, izangaien bi zerrenda osatzeko deialdiaren oinarriak onartu zituen. Helburua zen, aldi baterako kontratatzeen bidez, Berriozarko Udaleko Zerbitzu Anitzen alorrean aritzeko izangaien zerrendak osatzea, bata lorategien arloan sortzen diren premiei erantzuteko, eta bestea garbiketako eta lanetako arloan sortzen direnetarako.

1. Arau orokorrak.

1.1.- Hautaketa proben bitartez, zerbitzu anitzetako langile aritzeko izangaien zerrendak osatzeko deialdia iragartzen da. Kontratatzeak aldi baterakoak izango dira, eta helburua, Berriozarko Udalean lorategien, lanen eta garbiketaren arloetan sortzen diren beharrei erantzutea.

Aldi baterako kontratatzeko izangaien zerrenda hauek bigarren mailakoak izango dira, langile finkoen beste edozein zerrendari dagokionez, jada badagoen zerrenda edo etorkizunean eratzten ahal dena izan. Eta era berean, zerbitzu anitzetako langile aritzeko funtzionario edo lan-legepeko kontratatu finko izateko hautaketa probetan parte hartu duten, baina gainditu arren plazarik gabe gelditu direnen edo, proba guztiak gainditu gabe, dagokion deialdian zehaztutako hautaketa prozedurako proba edo fasea gainditu dutenen zerrendari dagokionez ere.

1.2.- Eginkizunak hauek izango dira:

Lorategietako lanpostuetarako:

Lorategiak garbitzea.

Berdeguneetako eta ureztatze sistemetako mantentze lanak egitea.

Zuhaitzak inaustea eta horien mantentze lanak egitea.

- ✓ Agintzen ahal zaizkion antzeko beste batzuk, betiere udalaren zerbitzurako, espezializazio jakin bat behar izan gabe, lanbidea nolabait jakitea edo nolabaiteko trebetasuna izatea eskatzen dutenak. Nolanahi ere, eginkizun guztiak langilearen eskumenen arlokoak izango dira, eta bere mailaren eta kategoriaren barnean egongo dira.

Garbiketako eta lanetako lanpostuetarako:

- ✓ Kaleak, espaloiak eta plazak garbitzea.
- ✓ Saretak, paperontziak, hautsontziak eta kaleko gainerako altzariak garbitzea.
- ✓ Eraikin publikoen fatxadak garbitzea.

- ✓ Kaleak eta plazak ureztatzea.
- ✓ Udal eraikinetan, instalazioetan eta ondasunetan mantentze lanak egitea eta horiek kontserbatzea.
- ✓ Igeltserotzako lanak egitea, arekak eta errekek garbitzea, eta bideak egokitzea.
- ✓ Agintzen ahal zaizkion antzeko beste batzuk, betiere udalaren zerbitzurako, espezializazio jakin bat behar izan gabe, lanbidea nolabait jakitea edo nolabaiteko trebetasuna izatea eskatzen dutenak. Nolanahi ere, eginkizun guztiak langilearen eskumenen arlokoak izango dira, eta bere mailaren eta kategoriaren barnean egongo dira.

1.3.- D mailari dagozkion ordainsariak jasoko ditu langileak, eta bai antzeko lanpostuetarako plantilla organikoan ezarrita dauden eta egokitzen zaizkion osagarriak ere.

1.4.- Lanaldia zerbitzuaren beharretara egokituko da, eta eskumena duen administrazio organoak edozein unetan aldatu ahal izango du.

1.5.- Dena delako lanpostuaz hornitzeko beste hautaketa bat egin bitartean egongo da indarrean zerrenda eta, halakorik ez bada egiten, zerrenda onartzen denetik aurrera, gehienez ere, 3 urtean.

2. Izangaien betebeharrak.

Eskaerak aurkezteko epea amaitzen den egunean, baldintza hauek bete beharko dituzte izangaiek:

a) Herritartasuna: Espainiarra izatea, edo Europar Batasuneko beste estatu batekoa, edo, Europar Batasunak izenpetu eta Espainiak berretsitako nazioarteko itunak direla medio, langileen zirkulazio librea aplikatzen den eremuko estatu batekoa.

Era berean, espainiarren eta Europar Batasuneko beste estatuetakoko edo aipatu nazioarteko itunek ukitutako estatuetakoko herritarren ezkontideek hartzen ahal dute parte, zuzenbidez bereizita ez badaude; halaber, haien ondorengoek eta ezkontidearenek, zuzenbidez bereizita ez badaude, hogeita bat urtetik beherakoak badira, edo gorakoak baina haien kontura bizi direnak.

b) Adina: Hemezortzi urte beteak izatea eta erretiroa nahitaez hartzeko ezarritako gehieneko adina ez izatea.

c) Tituluak: Eskaerak aurkezteko epea amaitzen den egunean, Eskola Graduatuaren titulua izatea edo hori lortzeko baldintzetan egotea. Horrez gain, lorezaintzako probak egin nahi dituztenek Lorezaintzako Titulu Teknikoa (erdi mailakoa) edo baliokidea izan beharko dute.

Atzerrian lortutako tituluen kasuan, titulu horien onarpen ofiziala egiaztatzen duen sinestamendua eduki beharko da.

d) Bateragarritasun funtzionala: Lanpostuaren eginkizunak bete ahal izateko gaixotasunik, elbarritasunik edo ezindura psikikorik ez izatea.

e) Gaitzea: Eginkizun publikoetan aritzeko ezgaitu edo gabetua ez egotea eta administrazio publikoren baten zerbitzutik bereizita ez izatea.

d) B1 motako gidabaimena izatea.

Espainiako herritartasuna ez duten izangaiek egiaztatu egin beharko dute, gainera, beren Estatuko Funtzio Publikoan sartzea galarazten dien diziiplina-zehapenik edo kondena penalik ez dutela.

Hautatzen diren eta aldi baterako kontratatzeko deitzen zaien izangaiek dokumentuen bidez egiaztatu beharko dute baldintza horiek guztiak denboran eta moduan betetzen dituztela. Adierazten zaien unean egin beharko dute, gainera, eta dagokien kontratua formalizatu baino lehen, betiere.

Izangaiek eskaerak aurkezteko epea bukatzen den egunerako bete beharko dituzte baldintzak, eta haiei eutsi beharko diete hautapen prozedurak dirauen bitartean, bai eta kontratatzealdiak irauten duen bitartean ere.

3. Prozedura.

3.1.- Hautaketa prozedura Nafarroako Administrazio Publikoan zerbitzuko Langileen Estatutuaren Testu Bategina onetsi zuen abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretuaren 89. artikuluan ezarritakoak arautuko du ("Erregimen administratiboan kontratatutako langileen hautaketa deialdi publikoaren bidez egingo da, eta merituen eta gaitasunaren printzipioetan oinarritutako proben bidez"); eta bai ekainaren 5eko 113/1985 Foru Dekretuak onetsi zuen Langileak Nafarroako Administrazioa Publikoetan sartzeko Erregelamenduko 42.1 artikuluan ezarritakoak ("Aldi baterako langileen hautaketa deialdi publikoaren bidez egingo da, eta deialdi horretan berdintasun, meritu eta gaitasun printzipioak bermatuko dira, bai eta publikitatearena ere. Nolanahi ere, aldi baterako langileak hautatzeko prozedurek bidea eman beharko dute kontratatzea ahalik eta arinena izateko") eta 42.2.d) artikuluan ezarritakoak ere ("Nafarroako administrazio publikoek aldi baterako kontratatzeko izangaien zerrendak egin ahal izango dituzte, hautatzeko sistema hauekin bat eginda: helburu horretarako Nafarroako Enplegu Zerbitzuak bidaltzen duen zerrendan ageri diren izangaien artean egindako hautaketa proben bidez eratutako izangai zerrendak, dena delako lanposturako eskatutako baldintzak betetzen dituztenak, eta dagozkien hautaketa probetan lortutako puntuen ordenaren arabera").

3.2.- Dagokion lan eskaintza publikoa Nafarroako Enplegu Zerbitzuan aurkeztuko da.

3.3.- Interesdunek **012 telefono zenbakira deitu beharko dute** probetan izena emateko. Deitzen dutenean, esan beharko dute lorategietakoan, garbiketa eta lanetakoan, edo bietan parte hartu nahi duten. **Izena emateko epea 2011ko urriaren 11 eta 24a artekoa izango da, bi egun horiek barne.**

3.4. **Urriaren 25 eta 28a arteko astean**, Udalaren webgunean (www.berriozar.es) eta **Berriozarko udaletxeko iragarki taulan** onartu diren pertsonen zerrenda jarriko da, eta lehenbiziko proba egiteko eguna, ordua eta tokia jakinaraziko dira.

4. Epaimahaia.

4.1.- Epaimahaiak kide hauek izango ditu:

Mahaiburua: Berriozarko Udaleko alkate jauna edo berak izendatzen duen pertsona.

Mahaikideak:

1. kidea: Alberto Onieva Onieva jauna, Berriozarko Udaleko Lorategi Zerbitzuaren arduraduna.

Ordezkoa: Titularrak izendatzen duena.

2. kidea: Patxi Iriarte Etxenike jauna, Berriozarko Udaleko arkitekto teknikoa.

Ordezkoa: Titularrak izendatzen duena.

Kidea: Berriozarko Udaleko ordezkari sindikala. Izendatu beharrekoa.

Ordezkoa: Berriozarko Udaleko ordezkari sindikala. Izendatu beharrekoa.

Kidea-idazkaria: Berriozarko Udalekoa edo izendatzen duen pertsona.

Ordezkoa: Titularrak izendatzen duena.

4.2.- Epaimahaiko kideek ez dute parte hartuko, eta Berriozarko Udaleko alkateari jakinaraziko diote, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legean parte ez hartzeko aipatzen diren egoeretakoaren batean baldin badaude.

Izangaiek, era berean, zilegi dute mahaikideak errefusatzeari, egoera horietako bat gertatzen denean.

Legez ezarritako abstentzio eta errefusatzeari arrazoiak aplikatuta aldatetarik gertatzen bada epaimahaiaren osaketan, Berriozarko Udalaren webgunean (www.berriozar.es) argitaratuko da hori eta bai udaletxeko legezko abisuen taulan ere.

4.3.- Hautaketa proben aurretik eratu beharko da epaimahaia, eta, baliozko moduan eratzeko eta jarduteko, ezinbestekoa izango da, gutxienez, kideen gehiengo absolutua.

Era berean, epaimahaia baliozko moduan eratzeko eta jarduteko, ezinbestekoa izango da lehendakaria eta idazkaria egotea edo, bere kasuan, horien ordezkariak.

4.4.- Epaimahaiak gehiengo ebatziko dituen deialdi honen oinarrien interpretazio eta aplikazioaren inguruko arazo guztiak.

4.5.- Epaimahaiak aholkulari adituen laguntza eduki ahal izango du proba batzuetan edo guztietan. Aholkulari horiek beren espezialitate teknikoetan baizik ez dira ariko eta horietan bakarrik emango diete laguntza epaimahaikoei.

5. Hautaketa prozesua.

Lorategietako eta garbiketako eta lanetako zerrendak osatzeko probak ordu desberdinetan egingo dira, hartara, izangai berberak bi probetan parte hartu ahal izateko.

5.1.-Lehen proba, teorikoa:

Gehienez ere, **52 puntu** lortu ahal izango dira. Erantzun okerrekin puntuak kenduko dituzte, eta erantzun gabe uzten direnekin ez dute, ez punturik gehituko, ezta kenduko ere. **Puntu gehien lortu dituzten hamabost lagunek** baino ez dute egingo proba praktikoa. Dena den, berdinketa gertatzen bada, puntu kopuru berbera duten guztiek egingo dute proba praktikoa.

Proba egiteko eguna zein den udal webgunean (www.berriozar.es), iragarki taulan eta 012 telefono zenbakiaren bidez jakinaraziko da.

Proba praktikoa egin baino lehen, hautatu diren izangaiek eskatzen diren titulu akademikoak aurkeztu beharko dituzte, esaten den egunean.

5.2.-Bigarren proba, praktikoa:

Gehienez ere, **40 puntu** lortu ahal izango dira. Proba hau nahitaez egin beharko da, baina ez da kanporatzekoa izango.

Proba egiteko eguna zein den udal webgunean (www.berriozar.es), iragarki taulan eta 012 telefono zenbakiaren bidez jakinaraziko da.

5.3.- Euskararen ezagutza erakusteko proba. Aukerakoa: **Proba praktikoa** egin behar duten lagunek eskatu ahal izango dute euskaraz badakitela erakusteko proba egitea (aukerakoa da). Epaimahaiari eskatu beharko diote, idatziz, proba teorikoaren emaitzak argitaratu eta hurrengo bi egunen barnean. Edo bestela, dagokion titulu ofiziala aurkeztu beharko dute. Euskara jakitea honela baloratuko da:

PUNTUAK	EZAGUTZA MAILA
8	B2
6	B1
4	A2
2	A1

Proba hau ere ez da izango kanporatzekoa, eta, gehienez ere, **8 puntu** eskuratu ahal izango dira.

6. Gaindituen zerrenda eta deitzea.

6.2. Hurrenez hurrengo proben emaitzak udal webgunean (www.berriozar.es) eta Berriozarko udaletxeko iragarki taulan kaleratuko dira.

6.3. Sortzen diren beharren arabera, deialdi honetako oinarrietan eta aplikatzekoak diren gainerako arauetan ezarrita dagoenarekin bat deitu ahal izango zaie hautatutako izangaiei.

6.4.- Kontratatzeko deitzen zaien izangaiek bigarren oinarrian ezarritako baldintzak betetzen dituztela egiaztatzeko agiriak aurkeztu beharko dituzte, Berriozarko Udalak adierazten duen epean. Hain zuzen, hauek aurkeztu beharko dituzte:

a) Nortasun Agiri Nazionalaren kopia konpultsatua edo izangaiaren herritartasuna eta nortasuna egiaztatzen duen agiri baliokidea.

b) Deialdiaren 2.c) oinarrian eskatutako tituluaren kopia konpultsatua edo hori lortzeko eskubideak bete izanaren erreziboaren kopia (**ariketa praktikoa egin aurretik aurkeztu beharko dira titulu hauek**).

d) Zinpeko aitortpena, eginkizun publikoetan aritzeko desgaitua edo gabetua ez dagoela eta inongo administrazio publikoren zerbitzutik ez dela bereizia izan erakusten duena.

6.6. Aipatutako epearen barrenean, eta behar bezala arrazoitutako ezinbesteko kasuetan salbu, agiri horiek aurkezten ez dituztenak ezin izango dira izendatu, eta haien jarduketa guztiak baliorik gabe geldituko dira.

6.8. Kontratatuena alta emango da Gizarte Segurantzaren Erregimen Nagusira eta han afiliatuko dira, eta, horrenbestez, beren kontu izango da dagokien kuota eta egokiak diren kopuruen PFEZaren atxikipena.

7. Helegiteak.

Deialdi honen, bere oinarrien eta egintzen aurka, helegite hauetako bat aurkeztu ahal izango da aukeran:

a) Berraztertzeko helegitea, hel egindako egintza egin duen organoaren aurrean, hel egindako egintza edo akordioa jakinarazi edo argitara eman eta hurrengo egunetik aurrera hilabeteko epean.

b) Administrazioarekiko auzi-helegitea, hel egindako egintza jakinarazi edo argitara eman eta hurrengo egunetik aurrera bi hilabeteko epean.

c) Gora jotzeko helegitea, Nafarroako Administrazio Auzitegiari zuzendua, hel egindako egintza jakinarazi edo argitara eman eta hurrengo egunetik aurrera hilabeteko epean.

Epaimahai kalifikatzailearen egintzen aurka gora jotzeko helegitea aurkeztu ahal izango da deialdia egin duen udal organoan, hel egindako egintza edo akordioa jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera hilabeteko epean.

I. ERANSKINA. GAITEGIA

ARIKETA TEORIKORAKO GAITEGIA

Garbiketako eta lanetako probetarako gaiak:

1. gaia.- Garbiketa lanak egitea, eta bideak, pasealekuak, egoteko gunek, eta aisialdirako eta haurrak jolasteko gunek kontserbatzea.

3. gaia.- Ekitaldi sozio-kulturaletarako eta jaietakoetarako agertokiak eta hesiak lekualdatzea, eta horien ondotik garbiketa lanak egitea.

4. gaia.- Kale-plazak garbitzeko makineria. Aplikatzeko sistemak. Ibilgailuak, makineria eta erremintak erabiltzea eta horien lehen mailako mantentze lanak egitea.

5. gaia.- Eraikuntzako materialak.

Lorategietako probetarako gaiak:

6. gaia.- Soropiletan eta belardietan egin beharreko kontserbatze lanak (ureztatzea eta motak; soropila segatzea; areatzea; aireberritzea; nabarmentzea; berriro ereitea), zuhaitzetan eta zuhaixketan (ureztatzea eta motak; zulatzea eta jorratzea; inaustea; entutoratzea).

7. gaia.- Sortzeko edo/eta berriz jartzeko lanak lorezaintzan. Soropila berriz jartzea eta ereitea (helburuak, berriro ereiteko moduak, egiteko garaiak, drainatzeak eta motak), zuhaitzak berriro jartzea, zuhaixkak eta loreak dituzten landareak. Alorra prestatzea. Drainatzeak. Drainatze motak. Landatzeko modu desberdinak. Landatzeko esparrua eta espezieak aukeratzea.

8. gaia.- Inausteko lanak egitea: zuhaitzak inaustea, espezieen inauste premiak. Inaustearen printzipioak (helburuak, motak, garaia eta maiztasunak, ebakiak egiteko modua). Zuhaiak, azpi-zuhaiak eta landaresiak inaustea (espezieen inauste premiak, kontuan hartu beharreko faktoreak, inauste motak, inaustea, inausteko garaia).

9. gaia.- Ureztatzeko sarea kontserbatzeko lanak egitea: ureztatzeko instalazioan prebentzioa mantentzea egitea. Ihinztigailuak, difusoreak, tantakatzeko sistema eta urez estaltzea. Ukondoak, teak, ixte eta ebakitze giltzak. Elektrobalbulak. Iragazkiak. Euri sentsoreak.

10. gaia.- Berriozarko udal barrutian dauden landare espezieak ezagutzea.

Bi probetarako gai komunak

11. gaia.- Udalerriko bazterrak eta izenak. Udal barrutiko kaleak: izen ofizialak eta tradiziozkoak.

12. gaia.- Berriozarko Udalaren kale-plazetako ordenantza.

13. gaia.- Zerbitzu anitzetako lanpostuetan (garbiketak, lanak eta lorategiak) segurtasun eta higiene neurriak eta nozioak.

14. gaia.- Zerbitzu anitzak, oro har: iturgintzako, elektrizitateko eta igeltserotzako oinarritzko ezagutzak.

Berriozarren, 2011ko irailean_Frantzisko Xabier Lasa Gorraiz alkate-udalburua.